

# Aretxagazeta

**ETA GAINERA...**

**Ze barri?**

ASTEKO GAIA  
Sorospen ikastaroa /8

BOTEPRONTOAN  
Arantza Unzueta  
Kultur teknikaria /9

LEINTZ GATZAGA  
Ehunka ehiztari  
Gatzagako basoetan /10

**Asteburuan...**

**Gastronomia eta folklorea**

**ELKARRIZKETA: SERIAL NUMBER /4 • ATXABALTARRAK MUNDUAN: JOSU OTXOA /7**

**GUARDIAKO FARMAZIA**

ZAPATUA, 20  
ITURRALDE. Mitarte, 18. .... 943 79 27 22  
DOMEKA, 21  
ITURRALDE. Mitarte, 18. .... 943 79 27 22

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
Aretxagazeta	943 79 86 21
Fax	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte-Laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide Elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kiroletxea	943 71 26 28
Kultur-Etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi E.E.	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxio M.E.	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun zentroa	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi Geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

**UDALTZAINGOA**  
Arrasate ..... 943 79 14 39

**LARRIALDIK**  
SOS Deiak ..... 112  
Eskualde-Ospitalea ..... 943 03 53 00  
Ertzaintza ..... 943 79 71 99  
Gurutze-Gorria ..... 943 76 55 76  
Larrialdia ..... 943 46 11 11  
Suhiltzaileak (Onati) ..... 943 78 28 00

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**  
Domekak: 11:00, 12:00  
Zapatuak: 19:30  
Lanegunak: 19:30

**SANTA RITA**  
Domekak: 09:00  
Zapatuak: 18:30  
Lanegunak: 08:00

**BASERRI AUZOETAN: LARRIÑO**  
Domekak: 12:30

**MENDIOLA**  
Domekak: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

**GELLAO**  
Domekak: 11:30

**OHARRAK**

**1988. URTEKO KINTOEN AFARIA**  
Urriaren 28an, Mendiolako erretegiaren afaria egingo dute 1969. urtean jaiotakoek. Izena emateko, Haizea tabernara joan eta 1.000 pezeta ordaindu. Antolatzaleek guztiak animatzeko deialdia egin dute.

**1975. URTEKO KINTOEN AFARIA**  
Urriaren 27an egingo dute 1975eko kintoek afaria, Taberna Berri jatetxean. Izena emateko, 1.000 pezeta ordaindu behar dira urriaren 24a baino lehen. Afari egunean, bestalde, Taberna Berrin elkartuko dira arratsaldeko 20:00etan.

**EMAKUMEENDAKO SOLDADURA IKASTAROA**  
Arrasate-Aretxabaleta institutuak antolatutako emakumeendako soldadura ikastaroan izena emateko epea bukatuta egon arren, antolatzaleek esan dute oraindik lekua dagoela ikastaroan parte hartzeko. Helburua da 15 emakume taldea sortzea.

**ARETO DANTZEN IKASTAROA**  
Astelehenero, arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara bitartean, Natalio Maiztegi maisuak areto dantzen eskolak emango ditu Kurtzebarri eskolan.

**LORAMENDIREN AGENDA**

**URBELTZEN DANTZAGANBARA**  
Egubakoitzean, hilaren 19an, *Dantzaganbara* izeneko ikuskizuna aurkeztuko dute Urbeltzen. Ekitaldia udaletxe zaharrean izango da, gaueko 22:30ean.

**EUSKARA ARMIARMA SAREAN**  
Datorren egunean, hilaren 25ean, *Euskara armiarma sarean* izeneko hitzaldia egingo du Joxerra Gartzia, udaletxe zaharrean, arratsaldeko 19:30ean.

**ORAINDELA 9URTEARETXABALETAN**

**Iñurrategi anaiak Everestetik bueltan**

Iñurrategi anaiek munduko gailurra, Everest mendia, igo zutenetik, Aretxabaletan jende guztia zegoen euren zain. Azkenik, urriaren erdialdean etorri ziren herrira. Orduan ohitura zen moduan, sekulako ongi-etorria egin zieten arratsaldeko 19:00etan Udaletxe parean.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

**"Mendigoizale"**

Mendizale talde bateko kidea.  
—Guti zarra mendigoizale amorratua zuan.



**ZORIONAGURRAK**



ARETXABALETAKO  
**Saioa Ezquibel**  
17an ospatu zuen urtebetetzea. Urte askotarako! Puriren partetik.




ARETXABALETAKO  
**Ziortza Martín**  
19an, 28urte. Urte askotarako! ARETXAGAZETAKO lankideak.



ARETXABALETAKO  
**Aritz Iturbe**  
20an, 28 urte. Ordua zanezkonketako, zorionak!



ARETXABALETAKO  
**Karlos Martín**  
20an. Zorionak, Inma, Nahia, Ane eta Endikaren partetik.



ARETXABALETAKO  
**Kerman González**  
23an. Urte askotarako! Familiaren partetik.



ARETXABALETAKO  
**Inma de Jesús**  
24an beteko ditu urteak. Urte askotarako! Rosaren partetik.



ARETXABALETAKO  
**Rosa del Aguila**  
25ean ondo-ondo pasatu Rosita. Zorionak kafe orduko lagunaren partetik.

BABESLEA

**Zorionak denoi !!!**

Foto

**Urkiola**

Argazkidenda

HERRIKO PLAZA 5  
20550 ARETXABALETAKO  
TELEF 943 79 39 20


- \* ESTUDIOAK
- \* ESKONTZAK
- \* JAUNARTZEAK
- \* ENMARKAZIOAK
- \* DIGITAL LANAK
- \* KAMARAK ....

Beti karretea edo albuma dohanik !!

**MIRVAT**

**Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak**

MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua  
Aingeru ibiltokia 41  
ESKORIATZA  
943 71 45 06 Faxa: 943 71 50 05




## ATREBENTZIAEZPADA/ Hegazkiñien egingo zeuke baje bat?



**BEGOÑA ARANA**  
Etxekoandrie




**CATI FABIAN**  
Langillie




**LOLE PAVO**  
Langillie



**ALBERTO ROLDAN**  
Langillie



**MANUEL ETXEBARRIETA**  
Jubilau



**FELIS BELTRAN DE HEREDIA**  
Langillie

Bai. Hegazkiñien sartu ostien iguel pentsauko neuke Estatu Batuetan pasau danaz, baiñe uste dot horregaittik trankil fango nitzakela. Ikusi egin biher momentue aillegetaraken.

Ez dakit. Egixe esan, ez dot pentsau be egin, eta ez dakit ze egingo neuken. Bilddurre baino gehixago, errespetue emuten dustie hegazkiñek, eta egoerie dagoen moduen ikusitte...

Ez dakit. Bilddur haundixe emuten dustie hegazkiñek. Behin bakarrik ibilli naz, oin hamazortzi urte ezkondu nitzenien. Hala eta be, arriskue beti dago, terroristak egon edo ez.

Bai, zergaittik ez? Hegazkiñien fatiei baino gehixago, nora fatiei begiretuko neuskio. Afrikara ez nitzake fango, baiñe Hego Ameriketara bai. Dana dala, gero eta garestixago dago.

Ez nauke egingo ba? Trankil eta gustora, gaiñera. Geruago eta seguruagoe dala uste dot, eta trankil asko fango nitzake. Gerrien eta terroristen bilddurrik, behintzet, ez neuke eukiko.

Bai horixe, gustora egingo neuke baje bat, eta ez dust inporta hegazkiñien edo trenien. Baiñe argi dauket Estatu Batuetara ez nitzakela fango, ez lehen, ez oin, ezta gero be.

## TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK LASA, SA** Lehen ere bota genion txistu handi bat Lasa SA lantegiak botatzen duen keari, eta orain lehengoa baino handiagoa botako diogu. Abuztuan zen Lasa lantegia Bainuetxeko industrialdera pasatzekoa, baina urria heldu da eta oraindik lehengo lekuan dago. Baliteke denbora laburreko kontua izatea, baina bitartean, atxalbarrak ke zikina irensten jarraitzen dugu. /MIRARI ALTUBE

## ETABARRUAN...

ELKARRIZKETA /4

**Serial Number musika talea**

Foru Aldundiak antolatutako Gaztemaniak musika lehiaketan saritua izan da talde atxabaltarra.

ASTEKO GAIA /5

**Gastronomi eta folklore jai**

Domekan ospatuko da V. gastronomi eta folklore jaialdia. Patxaran lehiaketa ere egingo da.

KIROLA /6

**UDA taldea lehenengo**

Domekan banakoa lortu ostean, lehenengo postuan jarraitzen du preferente mailako taldeak.

## ASTEKODATUA

8

**ZINEGOTZI EGON ZIREN ASTELEHENEKO PLENOAN**

Astlehenean egindako ez ohiko osoko bilkuran, alkatea eta Batasunako bost zinegotzietz gain EAJ-EA alderdiko hiru ere egon ziren. Uztaileko azkenengo plenotik agertu barik zeuden hauek.


## BESTEKEESANA

**Itxura aldaketa handia izan badu ARETXAGAZETAK, lantaldeak lehengo leku berean jarraitzen duela adierazi gura die ARETXAGAZETAKO batzordeak herritar eta irakurle guztiei. Joan den astean edo orain hamar urte bezala, zuen zerbitzura jarraitzen du Aretxabaletako aldizkariak.**

Hemendik aurrera ere beldur barik ekarri zorion-agurretarako argazkiak, erretratu zaharrak, txutxumutxu barregarriak edo albiste serioak. Hainbat bide dituzue, gainera, zuen kontutxoak guri helarazteko: telefonoz deituta, korreo elektronikoko bidez, 151 posta kutxara bidalita edo hona bertara etorruta. Badakizue zuen beharrean gaudela, eta hemendik aurrera inoiz baino gehiago, zuengana astero-astero heltzeko asmoa daukagu-eta.

ARETXAGAZETAKO BATZORDEA

## HERRITARRENBERBAK/ Edorta Mendieta



*Pauso berri bat ematera goaz*

**A**RETXAGAZETAren historian pauso berri bat eman dugu gaur. Goiena egitaman parte hartzea erabaki zenetik hona, pausorik garrantzitsuena eta ikusgarriena.

Goienak eskualde mailan talde informatibo indartsu eta euskalduna sortzea du helburu. Eta nolabait, eskualde izaera suspertu eta eskualdeko bizkarrezurra osatzen lagundu nahi duena.

Proiektu honean sartu izanak, jakina, aldaketa handiak eragin dituzte gure aldizkarian, batez ere; itxurari eta antolamenduari dagokienez. Baina aldizkariaren mamiak, hau da, edukiak, orain artekoa izaten jarraituko du.

ARETXAGAZETAren herriko kontuak eta albisteak jorratu ditugu orain arte. Badakigu hori dela gustuko duzuen eta gure aldizkarian aurkitu nahi duzuen. Aurrerantzean ere hala izan dadin egin ditugu gure ahalegin guztiak gaur arteko prozesuan. Horrekin

batera, gainerako orrietan inguruko herrietako eta eskualde osoko berriak izango ditugu. Aretxabaletako mugetatik kanpo ere bada bizitza, eta eskualdean guretzat interes eta garrantzia izan dezaketekintza eta albiste asko gertatzen dira.

**“Goienak, nolabait, eskualde izaera suspertu eta eskualdeko bizkarrezurra osatzen lagundu nahi du”**

Herri bezala garatu nahi badugu, komunitate zabalago batean gure lekua aurkituta izango da, eta ez ingurukoekin lehiari ibilita.

Eskualde mailan planifikatu eta lan egiteak indartsu egiten gaitu eta garatzeko aukera emango digu. Baina ezin horrelakorik lortu eskualdea geurea ez badugu sentitzen edo, lehenik eta behin, elkar ezagutzen ez badugu. Horretan, Goiena eta bere produktua aktore garrantzitsuak izango dira.

Hori bai, aldatzen dena aldatuta ere, ARETXAGAZETA ez dauka inolako handi-terik. Herrikoia, zuzena, apala, eta, azken batean, zeuna eta geurea izaten jarraitu nahi du.

**Aretxagazeta**

Durana, 11  
20550 ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube  
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA  
Goio Arana

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
SS-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
2.270 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxega

## Lehen eta azken

**E**z da beherago jaitsiko, ez horixe! Realaz berbetan ari naiz. Beheko muturre-raino jaitsi da, eta izerdi gehiago ez badute botatzen, behintzat, ez dute bururik altxatuko. Jarraitzaileoi ere pazientzia bukatu zaigu ia-ia. Txaketa aldatu eta patateroen aldera pasatuko ete naizen... Eskerrak etxeko taldea bikain dabilen. Txalotzekoa da orain artean preferenteko UDAk egin duen denboraldi hasiera. Hortxe daude, Reala ez bezala, punta-puntan. Akaso, Reala eta Udaren arteko partidua antolatu beharko dugu, apustuak bero-bero egongo lirateke.

Etxeko beste gai batzuekin jarraituz, GOITB telebistan aurpegi berriak ditugu, horietako batzuk atxabaltarrak. Informatikaren alderdi ezezagun eta bitxiak erakusten Lore Martinez arituko da aurrerantzean. Sarean programa aurkeztuko du. *Soinuz blai* programan, berriz, Ugutz Usandizaga izango dugu aurkezle berria. Bi aurpegiak ikusi gura badituzue, bailarako telebista jarri besterik ez duzue. Txiki Zamoraren ipurdia, bestalde, Euskal Herria osoak ikusi zuen martizenean egunkarrietan. Protestaldi bake-tsua baina deigarria egin zuten Itoizekin solidarioek. Besarkada haundi bat hemendik Txikiri.

## ELKARRIZKETA

SERIAL NUMBER/MUSIKA TALDEA

# "Gaztemaniak musika lehiaketako diskoak taldearen berri emateko balioko du"

MIRARI ALTUBE

**F**oru Aldundiak antolatutako Gaztemaniak musika lehiaketan saritua gertatu da orainsu Serial Number talde atxabaltarra. Ez da lehenengo aldia, iaz Euskadi Gaztea-k antolatutako lehiaketan ere onenen artean izan zen-eta.

### Zer dela eta aurkeztu zineten Gaztemaniak lehiaketara?

Dagoeneko maketa grabatuta geneukan, eta iaz Euskadi Gaztea-ko maketa lehiaketara aurkeztu genuen. Han, nahiz eta 270en artean laugarren geratu, ez genuen ezer irabazi eta beste lehiaketa batera aurkeztea pentsatu genuen.

### Eta saria irabazi duzue.

Bai, benetako saria ez izan arren. Gaztemaniak-ek aterako duen diskoan abesti bat grabatu ahal izango dugu. Hainbat talde aurkeztu ginen, eta hamaika baino ez gara sailkatu.

### Zer ekarriko dizue grabaketa horrek?

Gaztemaniak-eko disko hori Euskal Herriko hainbat diskotxetan jarriko da salgai, hortaz, taldearen berri emateko balioko du. Guretako hori nahikoa da.

### Zelakoa da maketa?

Bat eta zerozko mundua jarri genion izena, eta Arrasateko Shot estudioan grabatu genuen. Lau abesti dauzka: *Egun bat*, *Biotrybe Inc.*, *Net Runner* eta *Pshykho-kaos urdina*. Azken hori bidali genuen Gaztemaniak-era.

### Eta zuen musika zelakoa da?

Hainbat samplerrekin nahastutako soinu industrialak dira. Metal moduan ere sailkatzen dute, baina guk uste dugu etiketa guztietatik aldentzen garela. Gainera, jakin gura duena etor dadila gure kontzertuetara.

### Zenbat kontzertu eman dituzue?

Batzuk bai, dena dela, iaz gehiago eman genituen. Aurten



SERIAL NUMBER

*"Gaztemaniak-ek aterako duen diskoan abesti bat grabatu ahal izango dugu"*

geldi egon gara, baxu berria daukagu eta horrek hainbat arazo ekarri dizkigu. Orain, berriz ere indartsu gaude eta abesti berriak lantzen gabilta.

### Etorkizunerako zein asmo duzue?

Gabonetarako maketa berria grabatzea gustatuko litzaiguke,


*"Hainbat samplerrekin nahastutako soinu industrialak egiten ditugu"*

eta horretarako gau eta egun gabilta lanean. Dagoeneko hamabi bat abesti ditugu, nahiz eta gero maketan bost baino ez sartu. Horrez gain, interneten web orria jarriko dugu eta maketarekin batera CD-ROM interaktiboa egingo dugu. Argi dago, teknologia berrien eraginpean gaude.

*"Gabonetan maketa berria eta CD-ROM interaktiboa atera gura ditugu, baita web orria ere"*

### Aurten aurkeztuko zarete Euskadi Gaztea-ko lehiaketara?


Ez, iaz aurkezteko presaka eta larri ibili ginen, eta horrela gauzak ez dira ondo irteten. Aurten, lasaiago ibili gura dugu, eta maketa berria askoz ere landuagoa izango da.



**AZKARATE**  
aroztegia

943 76 47 19  
eta 610 88 40 20

ateak • leihoak  
horma-armairuak  
tarimak • parketak



**LANTOKI BERRIA**  
LABEGARAIETAKO  
INDUSTRIALDEAN  
BERGARAN

*Mitartegarai*  
Jatetxea



Arientza auzoa  
Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 79 17 51

**LEIBAR**  
arrandegia



Mitarte Kalea, 1  
Tel.: 943 77 13 79  
Aretxabaleta

**KULTURA/** KIUBek antolatutako jaiak beste kultura batzuk ezagutzeko aukera emango du

# V. gastronomia eta folklore jaialdia egingo da domekan

MIRARI ALTUBE


Datorren domekan, hilaren 21ean, V. gastronomia eta folklore jaialdia egingo da Aretxabaletan. Espainiako hainbat herrialdeko taldeak etorriko dira, eta euren abesti eta dantzak erakustez gain, gastronomiaz gozatzeko aukera emango digute.

Azkeneko bost urteotan moduan, Espainiako hainbat herrialdeko soinu, kolore eta usainez bete da herria urriaren 21ean. Gastronomiaren eta folkloreak inguruan egiten den jaialdia Aretxabaletako KIUB bulegoak antolatzen du, eta herriko ez gain, kanpoko jende asko erakartzen du.

## VII. PATXARAN LEHIAKETA

Arrasatetik Corazon de Encina extremadurarrak eta Alegria de la Sierra abesbatza andaluziarra, Laudiotik Gaztela eta Leongo San Fernando taldea, eta Donostiatik Galiziako Casa de Galicia eta Errioxako Casa Rioja etorriko dira. Euskal Herria, berriz, Lora-mendi dantza taldeak, Jakiongo produktuek eta atzeratuak aldeko taldeak ordezkatzeko dute. Goizean kiroletxean hasi eta herriko hainbat kaletan kalejira egingo dute talde guztiek, eta eguerdiko hamabiak inguruan herriko plazan batuko dira euren produktu goxoak herritarrei eskaintzeko.

Ohiturari jarraituz, patxaran



ARTXIBOA

Aurten, VII. patxaran lehiaketa egingo da. Urtetik urtera gero eta jende gehiago animatzen da parte hartzera.

lehiaketa ere egingo da egun horretan. Jadanik zazpigarren aldia izango da, eta gero eta arrakasta handiagoa dauka. Lehiaketa parte hartu gura duten atxabaltarrek gaur, egubakoitza,

aurkeztu behar dituzte euren patxaranak Udaletxean. Kanpotarrek, osterara, egunean bertan aurkez ditzakete. Sari banaketa, berriz, arratsaldean egingo da herriko plazan.

## LABUR

### Arrasate-Aretxabaletako institutuak Leonardo da Vinci proiektua abian jarri du

Arrasate-Aretxabaleta institutuak Leonardo da Vinci izeneko proiektuan parte hartuko du. Egitamua Europa mailan egingo da, eta hemengo institutuak Alemaniako Gustav-von-schlör institutuarekin egingo du lan. Proiektua garatu ahal izateko, ikasleen trukaketa egingo da. Datorren urtean, Debagoieneko bost ikasle joango dira Alemaniara, eta hainbat enpresatan praktikak egingo dituzte. Proiektuak, osterara, 2003. urtera arte iraungo du, eta ez da ikasleen trukaketarekin bukatuko, atzerrian lan egiteko aukera ere izango da-eta.

### Datorren urteko udal zergen igoera onartu zuten astelehenean egindako osoko bilkuran

Astelehenean, hilaren 15ean, egindako ez ohiko osoko bilkuran datorren urteko udal zergen KPI igotzea onartu zuten. Hala eta guztiz, urak eta zaborrak beste igoera batzuk izango dituzte. Zaborraren kasuan, Udalak Mankomunitateari ordaintzen dio zerbitzua, eta momentu honetan, milioi bateko defizita dauka. Datorren urteko igoerarekin defizita estaltzea gura da.

Uraren kasuan, bestalde, ur partzuergoari ordaintzeaz gain, ur-sarearen saneamendu eta hornikuntza gastuak aurrez ikusi dituzte, eta horretarako 27 milioi inguru batzea espero dute. Kontsumitutako ur kopuruaren arabera ere igoera ezberdina izango da, 30 metro kubiko arte %7 igoko da, hau da, 81 pezeta metro kubikoa, eta hortik gora %10, 131 pezeta. Hala ere, igoerak ez dira oso nabarmenak izango.

### Hainbat aldaketa izango dira kiroletxeko zerbitzuetako prezioetan 2002. urtean

Datorren urtetik aurrera, kiroletxeko zergek hainbat aldaketa izango dituzte. Halaxe onartu zuten astelehenean egindako osoko bilkuran. Aldaketarik nabarmenenak 65 urtetik gorakoek zergek izango dituzte. Familia-abonuen kasuan, 65 urtetik gorakoek osatutako familiek, %25eko igoera izango dute. Norbanakoen abonuetan hiru talde osatu dituzte: 21etik 64 urte artekoek %4ko igoera izango dute, 6tik 20 urte artekoek, langabeek, ikasleek eta ezgaituek, %21ekoa, eta hirugarren taldekoek, 65 urtetik gorakoek, %4koa. Hirugarren adineko gimnasia eskolak abonatuak ere ordaindu egin beharko dituzte. Alkatearen esanetan, erretiratuek ere lehen baino askoz hobeto kobratzen dute, eta benetan dirulaguntza behar dituztenek gizarte zerbitzuetatik bideratu ahal izango dituzte eskaerak.

*Aretz*

taberna

Markole, 5  
Tel.: 943 79 20 14  
ARETXABALETA

*Lubia*



ZAPATAK  
ZAPATILAK  
SANDALIAK  
GERRIKOAK  
ETA POLTSAK

Mitarte 14 • 943 79 16 00  
ARETXABALETA  
Biteri 1 • 943 79 66 53  
ARRASATE

ITURGINTZA

J.J

Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA KALEFAZIOA

943 79 31 87

ARETXABALETA

*Lie*

LURRINDEGIA  
OPARI-DENDA

Mitarte, 18 • 943 79 38 59  
ARETXABALETA

OSKAR  
GARAJEA

Tel.: 943 79 98 74  
Fax: 943 71 24 59  
Basabe Poligonoa, A-2-4  
ARETXABALETA



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 5  
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:

*Lyonel Arquero*

Dekorazioa:

*Soraya Arquero*

*Angelines*  
AUTOZERBITZUA

Frutan eta  
txarkuterian  
espezialitatea

Mitarte, 16 • 943 79 61 42  
ARETXABALETA

IZOTZ  
Taberna

Mitarte, 16  
Tel.: 79 73 65  
ARETXABALETA

## FOTOKIROLA



## Tinko eusten dio lehenengo postuari preferenteko UDAK

Pasa den domekan Mutrikun bana berdindu ostean, tinko eta lasai eusten dio lehenengo postuari Aretxabaletako talde nagusiak. Partidu aspergarria izan zen, eta lehenengo gola etxeko taldeak egin zuen partidua hasi orduko. Banakoa Zangituk egin zuen, lehenengo zatia bukatu baino lehen. Jadanik hiru puntu ateratzen dizkio UDAK sailkapeneko bigarrenari. /MIRARI ALTUBE

## Iban Sastre txirrindulariak hiru talderen artean aukeratuko du

MIRARI ALTUBE

Iban Sastre txirrindulari atxalbaltarrak hiru talde ditu aukeran hurrengo denboraldirako: Frantziako Cofidis, Portugalgo Gondomar eta momentuz zehaztu bako Espainiako talde bat. Ibanek

Espainian geratu gurako luke, hemengo itzuli eta birak egin ahal izateko, eta Ibanen ordezkariaren arabera, espero du arazorik ez egotea. Oraindik ez duenez ezer sinatu, ez du izenik eman gura; azarorako, ordea, jakingo da.

## FESTINA DESAGERTU

Orain arte Festina taldean ibili da, baina taldea desagertu ostean, ezer barik geratu ziren talde horretako txirrindulariak. Oso berri txarra izan zen guztiendako, eta Ibanek dio ez duela uler-tzen zergatik desagertu zen.

## PILOTA

## Federatu gabeko pilota afizionatuendako esku pilota txapelketa antolatu dute

Federatu bako eta esku pilotan jokatu gura duten guztiendako antolatu dute txapelketa Udaleko Kirol Zerbitzuak eta UDAko Pilota Sailak. Bi kategorია izango dira, eta liga eran jokatu dute lehenengo fasean. Izena emateko kiroletxera deitu behar da, 943 712628 telefonora, eta horretarako azken eguna urriaren 29a izango da.

## XAKEA

## Arrasateko San Andres taldera joango dira bi atxabaltar, talderik ez delako osatu

Andoni Carrasco eta Kepa Balenciaga atxabaltarrek Arrasateko San Andres taldean jokatu dute aurten. Iaz Aretxabaletan bi talde egon baziren ere, aurten ez da lortu laukotea osatzea bigarren mailan jarduteko. Hortaz, urriaren 27an, liga hasterakoan lehenengo mailako taldea baino ez da izango herrian.

## GOLFA

## Golf ikastaroak antolatu ditu Arabako mendialdean Debagoieneko Kirol Zerbitzuak

Debagoieneko Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak golf ikastaroak antolatu ditu Arabako Urturiko golf eskolan. Hastapeneko ikastaroa urriaren 20 eta 21ean emango da, eta hobekuntzakoa azaroren 10 eta 17an. Izena emateko, 943 712628 zenbakira deitu.

## KARTELDEGIA

## FUTBOLA

## UDA-Urola

Preferentea.

Domeka. 16:30. Ibarra.

## UDA-Barakaldo

Jubenilen Liga Vasca.

Zapatua. 17:30. Ibarra.

## PILOTA

## Aretxabaleta (1)-Arrasate

Seniorrak.

Eguakotxa. 22:00. Iturri-gorri.

## EMAITZAK

## FUTBOLA

## Mutriku 1 UDA 1

Preferentea.

## San Ignacio 5 UDA 1

Jubenilen Liga Vasca.

## UDA 3 Urki 0

Bigarren mailako erregionala.

## Eibartarrak 5 UDA 1

Bigarren mailako jubenilak.

## UDA 8 Idiazabal 1

Lehenengo mailako kadeteak.

## UDA (b) 1 Eibartarrak 1

Amaiak bat 1 UDA 0

Bigarren mailako kadeteak.

## PILOTA

## Lazkao 22 Aretxabaleta 12

Bigarren mailako kadeteak.

## Aretxabaleta 3 Gazte Leku 22

Bigarren mailako jubenilak.

## Aretxabaleta (2) 11 Añorga 22

Aretxabaleta (1) 17 Ilunpe 22


Lehenengo mailako jubenilak.

## Aretxabaleta (2)- Hernani -

Azkoitiako 9 Aretxabaleta (1) 22

Seniorrak.

IRIARTE

Umeen  
denda  
eta  
lentzeriaDurana, 8  
Tel.: 943 79 10 96  
ARETXABALETA

Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA  
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68ARETXABALETA  
ITURGINTZADurana, 16-Tel.: 79 17 53  
ARETXABALETA

MartiW

Bere bezeroen  
zerbitzuraMitarte, 16  
Tel.: 943 79 01 72  
ARETXABALETA

LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Jauregi  
OkindegiaOtalora, 10  
Tel.: 943 79 57 47  
ARETXABALETA

ARETXABALTARRAKMUNDUAN

JOSU OTXOA

23 URTE / MODELOA / MADRILEN BIZI DA

“Madrilera joan ondoren ikasi dut herri txikia eta, batez ere, baserriko bizimodua behar bezala baloratzen”

AMAGOIA LASAGABASTER

Modeloaren bizitzak hara eta hona bidaian ibiltzea dakar. Hori dela eta, oraindik gaztea bada ere, Josu makina bat lekutan bizi izandakoa da. Orain dela bi urte, esaterako, Madrilen bizilekua finkatzea pentsatu zuen Josuk.

Bartzelonara joateko agentzia baten eskaria ere izan zuen, baina ordurako Madrilen lagunak eginda zituen eta ez zuen bi bider pentsatu beharrik izan. Gainera, Josu Aretxabaletan nahiko aspertzen zen, herriak ez zeukan ezer berari eskaintzeko. Horrela, 21 urterekin Espainiako hiriburura joan zen. Hara helduan, Josuk ondo gogoratzen du bizi izandako lehenengo sentsazioa. Aurpegia ere aldatu zitzaion. Madril zelak des-kubritu, nora joan... dena egin gura zuen egun gutxian. Hori da, hain zuzen ere, herri txikiak eskaintzen ez ziona. Ekitaldi ugari, aspertze-

ko betarik ez... Madrilen dena dauka eskura.

MADRILEN MODELO

Madrilen modelo bizimodua darama Josuk. Egunekeo agendak batzuetan beterik izaten du, beste batzuetan, aldiz, ez du lanik izaten. Ohiko egun bat bere agentziara bisita eginez hasten du. Han, ondorengo egunetan izango diren *casting* berri ematen diote. Gero, kaleko lana hasten da:

“Madrilgo kaleetan jendea diru eske ikusteak sortzen dit tristura”


hainbat mediotako *casting*-tara joan, probak gertatu, eta horien emaitzen berri jaso. Horrez gain, harreman publiko moduan lan egin izan du. Gehienbat, modako diskoteketan lan egindakoa da, hortaz, ondo ezagutzen ditu Madrileko gauak.

Josu, lanak uzten dioenean bueltatzen da herrira, eta konturatu da geroago eta gehiago gustatzen zaiola hemengo bizimodua. Ez hori bakarrik, Madrilen kalera irten eta diru eske dabiltzan pertsonak ikusteak tristura handia eragiten dio. Aretxabaletan, beraren ustez, poztasun handiagoarekin bizi da jendea.

Madrilera joan aurretik, gainera, baserrian bizi zen. Orduan, ez zuen baserria baloratzen. Herritik beti urrun, autoaren beharra... Orain, berriz, itzultzen denean baserriko lanak egiten igarotzen ditu egunak, bai gustura ibili ere!

Hogeita bat urte bakarrik zituela joan zen Josu Madrilera. Baina berriz ere denboran atzera eginez, erabaki bera hartuko zukeen galdetuz gero, argi dauka erantzuna. Josuren esanetan, han ikasitako guztia ez da ikasten herrian geldituz gero.

Etorkizunean badaki etxera itzuliko dela. Baina argi dauka hori ez dela gertatuko etorkizun hurbilean. Izan ere, beste proiektu batzuk ditu buruan. Gainera, bizitzak buelta asko ematen ditu, eta bihar edo etzi non izango den ez daki Josuk. Hortaz, denborak esango dio atxabaltar gazte honi non daukan hurrengo geltokia.



NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Lehenago eta oraingo futbol zelaiaren ingurua

Loramendin, batek baino gehiagok gogoratuko du lehenago Ibarra futbol zelaia zelakoa zen. Harmaila txiki batzuek eta are aldagela txikiago batek inguratzen zuten zelai berdea. Atzealdean, begira, Portasolgo etxe zuriak zituen. Uda taldeak 1994/95 denboraldian jokatu zituen zelai hartan azken partiduak.

Futbol zelai berria metro batzuk atzerago egin zuten 1994. urtean. Hala ere, Portasolgo etxe zuriek leku berean jarraitzen dute gaur egun.



1994 Futbol zelai xumea zen ordukoa. Eskuzko markagailua, harmaila txikia eta aldagela baino ez zituen. Atzealdean, Portasolgo etxe zuriak daude. Hango bizilagunek futbol partidu bat baino gehiago ikusiko zuten urte haietan balkoitik. Inguruan, berriz, horma txiki bat baino ez zeukan.



2001 Lehenago futbol zelaia zegoen tokian, gaur egun argazkian ikus daitekeenez, autoendako aparkalekua eta futbol zelai berriko hormak daude. Atzealdeko etxe zuriak ere hortxe daude. Hortaz, aldatu ez dena balkoiko futbolzaleak dira; gaur egun ere, etxe horietako balkoitik ikus daitezke partiduak.

**BEIRALAN KRISTALDEGIA**

- Komunerako altzari eta manparak
- Horma armairuak
- Beirate artistikoak
- Salarako mahaia
- Beirate “fusing”ean kalitate handia

Herriko plaza, 8 behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 09 97 274

**TXILARRA**

**ELIKADURA BEREZIA**

Durana, 35 - Tfnoa: 943 79 10 15  
Loramendi, 9 - Tfnoa: 943 79 44

BITXITEGIA ERLOJUDENDA

**MIREN & ZURINE**

BITXIEN DISEINUA

**BITXIEN KONPONKETA**

Otalora, 4 (eliza aurrekaldean)  
Tel.: 943 77 13 57  
ARETXABALETA

# Ze barri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2001eko urriaren 19a / 53. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana, 11 2550 ARETXABALETIA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri?@goiena.com

## Sorospen ikastaroa abian da gaurtik aurrera Eskoriatzako kiroldegian

AINTZANE GARDOKI

Gaur hasi eta datozen zortzi asteburuetan, 17 gaztek hartuko dute parte Eskoriatzako Kirol Zerbitzuak, Udalaren laguntzarekin, antolatu duen Sorospen ikastaroan. 80 ordu izango dituen ikastaroak alde teorikoa eta praktikoa landuko ditu.

Batetik, lehen mailako laguntza landuko dute, eta bestetik, uretako sorospena. Gipuzkoako Sorosmen Federazioko begiraleen eskutik, 17 gazte arituko dira Eskoriatzako kiroldegian. Guztira, 12 mutilek eta sei neskek jardungo dute. Gehienak ibarrekoak badira ere, izango dira Gasteiz, Durango eta Iruñetik etorritakoak ere.

### EGOERA FISIKOAREN GARRANTZIA

“SHEEko ikasle ugari daude parte hartzaileen artean. Ikastaroa egin ahal izateko, hainbat froga fisiko gainditu behar dituzte. Soroslea fisikoki ondo prestatuta egon behar da. Askotan pentsatzen da izugarritzko atleta izan behar duela sorosleak, edo gorputz liraina izatea ezin-



GARBINE BETIA

Kiroldegian, larrialdian dagoenari laguntzen

bestekoa dela. Hori ez da horrela. Sorosleak egoera fisiko ona bai, baina, batez ere, duen arduraz oso kontzientziatuta egon behar da”, dio Unai Salaberriak,

kiroldegiko arduradunak.

Ikastaro honekin, ibarrean dagoen sorosleek eskasia ase nahi da. Salaberriaren esanetan, “profesionalizazioa amets hutsa da,

baina gazte hauek formatuz, ikasle diren bitartean lana egiteko aukera izango dute, eta gu, daukagun premiei erantzuteko moduan izango gara, behintzat”.

“Beste pertsonen bizitza bere esku izan dezakeela momentu oro jakin behar du sorosleak”

“Premia handia dago. Gazteok hezituz, egoera hobetuko dugulakoan nago”

“Sorosleak, lanean hasteko, alde teorikoa eta praktikoa gainditu beharko ditu”

### HERRITARREN HITZA / Mari Carmen Arrieta • Euskara Teknikaria

## Etxerako modukoa ote?

**Z**ebarritar maiteok, hau poza, hau trankilidadea! Azkenean, gure ZE BARRI? hau “asentatu” dela esan daiteke.

Makina bat gorabehera izan baditu ere, oraingoan badirudi egia dela.

Edozein jaioberrirekin gertatzen den legez, jaioren zenean ederra, polita eta xamurra iruditu zitzaigun. Bazituen bere akatsak, bai, baina familiak nahiz lagunok irrikaz itxaroten genuen bere jaiotza, eta pozez hartu genuen gure artean.

Denbora igarotzen zen heinean, haurra bizitzari aurre egiten hasi behar izan zen.

esfinterra kontrolatu, txupetea kendu eta itxura aldatu zuen. Kolorea sartu genion azalean eta orri kopurua gehitu. Hasierako aldaketak samur gainditu zituen. Eta zebarritarrok harro geunden hazten zen haur koxkorrari begira, baina... adoleszentzia ere iritsi zen.

Eta adoleszentziarekin batera, arazoak: nora eza, pertsonalitate garatu gabea, gauza asko probatu eta bat



“Heldutasunean bikotekidea aurkitu du gure txikiak”

aukeratu ezina, koadrilakoekin gorabeherak, arazo ekonomikoak... Egoera desatsegin horretan gaitzizanak ere etorri ziren, eta zenbait zirkulutan “zelarry” deitzen ziotela jakin dut.

Garai horretan, gainera, jaioberriri hazten lagundu zion

zenbait zebarritarrek ez zuten ulertzen gure gaztearen asentatu ezina, eta nola lagundu ez zekitelako edo inork euren laguntzarik eskatu ez zuelako,

adiskide nahiz lagun taldea txikitzen hasi zen.

Baina, tira, *teenagerraren* garaia pasa da eta heldutasunaren bidean bikotekidea aurkitu du gure txikiak. Eta beste askori gertatzen zaion moduan, honek ere bikotea aurkitzeaz bat janzkera, koadrila eta ohiturak aldatu ditu. Oraindik agudo da aldaketok onak diren edo ez esateko. Hori beste baterako utzi beharko dut.

Gauza bakarra espero dut: aurkitu berri duen bikotea etxerako modukoa izatea, guk geuk perla edarra uzten diogu eta.

### LABUR

## Udalak hiru langile berri egin ditu urrian

Kiroldegirako atezaina, Udalaxerako administrari-harregarilea eta lurperatzaile laguntzaile berriak jardungo dute aurrerantzean herrian. Lanpostuetarako epea pasa den apirilean bukatu bazen ere, irailaren 27an izandako azken osoko bilkuran eman zuten behin-betiko lanpostuen jabe izan direnen berri.

Guztira, 100 lagun baino gehiago aurkeztu ziren lanpostuetara. Karlos Azkarate eskoitzarra izango da aurrerantzean kiroldegiko atezaina.



**TELEFONOJAKINGARRIAK**

**ESKORIATZA**

Udaltxea.....	943 71 44 07
Udal Bulegoak.....	943 71 45 32
Udaltzaingoa.....	943 71 44 07
Euskaltegia.....	943 79 21 68
Kultur Etxea.....	943 71 46 88
Gizarte-Laguntzailea.....	943 71 31 36
Kiroletxea.....	943 71 53 28
Liburutegia.....	943 71 31 35
Luis Eceiza.....	943 71 53 56
Jose Arana-Almen Ikastol.....	943 71 44 86
Almen.....	943 71 49 07
Museo-Eskola.....	943 71 54 53
Axtroki?.....	943 71 40 77
HUHEZI.....	943 71 41 57
Osakidetza.....	943 71 44 52
Telesko.....	943 71 49 17
Taxia.....	943 71 40 59

**BESTELAKOAK**

Eskualde-Ospital (Arrasate) ..	943 00 53 00
Gurutze-Gorria (Bergara) ..	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate).....	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati).....	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga).....	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz).....	945 23 20 30
Pesa (Arrasate).....	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate).....	943 77 10 43
SOS Deiak.....	112

**AGENDA**

**ANTZERKI EMANALDIA**

Gaur, urriak 19, *El marido de la Pakita* antzezlanak ikusteko aukera izango da Jose Arana ikastolan, gaueko 22:30ean.

**HITZALDIA**

Urriaren 24an, arratsaldeko 17:00etan, Olazar erretiratuen elkarteak antolatua. Emaila: Estibaliz Andrio de Elortza medikua.

**DIAPOSITIBA EMANALDIA**

*Karabana internazionalista bizitzaren alde* gai hartuta, Kolonbiaren berri emango du Amaia Arrizabalagak, kultura etxean, arratsaldeko 19:00etan.

**AXTROKIRENAGENDA**

**ANJE DUHALDEREN KONTZERTUA, GANUZAN**

Axtrokiren 10.urteurrena ospatzeko ekintzekin jarraituz, datorren urriaren 26an, 22:30etan A.Duhalderen kantaldia izango da.

**KIROLA**

**XII. mendi bizikleta ibilaldia egingo da domeka honetan**

MIRARI ALTUBE

**Domeka honetan, hilaren 21ean, mendi bizikleta ibilaldia antolatu du udalak. Goizeko 09:30ean irtenda ibilaldi polita egiteko aukera izango da.**

Eskoriatza, Mazmela, Agarre, San Kristobal, Kurutzeta, Mariseka, Jarindo, Kurutzetako mendikatea, San Adrian, Apetzaga eta Eskoriatza. Horixe izango da domekan mendi bizikletaz egingo den ibilbidea, 38 kilometro inguruko ibilbidea, hain zuzen.

Goizeko 09:30ean emango zaio irteera Eskoriatzako plazatik. Izena emateko, ostera, ordubete lehenago agertu beharko da plazan, eta 1.000 pezeta ordaindu. Mendi bizikletaz gain, kaskoa eramatea beharrezkoa izango da. Ordaindutakoaren truke, bestalde, hain-

*Hamarretakoa, dutxak, bizikleta garbitzeko tokia, kamiseta eta luncha eskainiko dituzte*

bat zerbitzu eskainiko ditu Udalak: aseguru, hamarretakoa, aldagela eta dutxak, bizikleta garbitzeko tokia, kamiseta eta luncha. Eta parte hartzaileen artean opariak zozketatuko dituzte.

Eskoriatzarren artean oso harrera ona duen ekintza da domeka; 120 bat lagun batu izan dira aurreko urteetan. Eguna bukatzeko, gainera, luncha izango da plazan.



Mendi bizikleta ibilaldiak oso harrera ona izan ohi du eskoriatzarren artean.

**BOTEPRONTOAN/ Arantxa Untzueta · Kultura teknikaria**

*“Gazte asko dator atzetik; horrek lagundu egiten dit geroa baikor ikusten”*

**A**rantxa Untzuetak 15 urte daramatza Kultura teknikari moduan Eskoriatzan. Askotan, bere lanaren emaitzak ez dira izaten nahi bezain onak, baina baikor begiratzen dio geroari.

**Urte hauetan guztietan, zein helburu izan duzu?**

Helburuak aldatzen joaten dira, baina helburu nagusia izan da, betiere, elkarten eta Udalaren arteko zubi lana egitea, laguntza eta koordinazioa eskainita, herria dinamizatzea.

**Zer lortu da?**

Ordutik hona gauza asko aldatu dira. Orain, gauzak beste modu batera egiten dira, planifikazio eta helburu batzuekin. Urteen joan-etorrian, talde batzuk desagertu eta beste batzuk sortu egin dira,

eta mugimendu hori egotea ona da.

**Eta zer falta zaio egiteko Eskoriatzari?**

Askot! Azpiegiturarik ez dugu gauza askotarako; antzerki bat edo film bat ikusteko ez dugu ia aukerarik. Zentzu horretan, gauzak antolatzeke mugatuta sentitzen gara askotan. Baina legealdi berriarekin, aurrerapauso handiagoak ematen ari da Udala; aretoaren beharra aztertzen ari da, ludoteka sortu da, gazteendako lokala ere badator...

**Zer da zure lanean gustukoena duzuna?**

Umeendako ekintzak. Oso erantzun ona izaten dute, eta egin duzun esfortzuak merezi izan duela ikusten duzu. Pozgarria eta atsegina da. Nagusien parte

hartzea askoz urriagoa da.

**Hilero kultura programa osatzen duzue. Zer azpimarratuko zenuke datozen asteetarako?**

Benito Lertxundi izango da azaroan, eta Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoek ikuskizun berriaren estreinaldia hemen egingo dute. Nagusiendako Koldo Ameztoty ipuin kontalaria izango dugu, eta *Euskal Herria eta Dinosaurioak* erakusketa ikusgai izango da azaroaren 1etik 18ra bitartean.

**Kulturan, zelan ikusten duzu herria hamar urte barru?**

Baikorra naiz. Gauzak hobetzen ari dira, eta kalitatea eskaintzen da, gainera. Atzetik jende gazte asko dator. Esperantza badut.



Argitalpen honen edizioko laguntzaile

**kutxa** fundazioa



**bedardenda**

Tfnoa.: 943 71 43 27  
ESKORIATZA

Hnos. SAJERAS, C.B.


**Margogintza  
Dekorativo eta  
Industrial**

San Pedro, 14 behea ESKORIATZA  
Tel.-Faxa: 943 71 47 28  
Arrasate Tel.: 943 77 16 66  
Mobila: 608 92 11 18

## FOTONOTIZIA

Ehunka ehiztari  
Gatzako mendietan

Pasa den urriaren 12az geroztik, gainezka daude Gatzagan dauden 63 ehiza-postuak. Egutero egiten den zozketan, ibarreko ehiztariez gain, kanpotik etorritako ugari izaten da. Gatzaga leku preziatua da, nonbait, ehiztariendako, bertan elkartzen baitira Iparraldetik Hegoaldera bidean doazen hegaztiak. 7. postuan adi aurkitu ditugu Elgoibartik etorritako bi gazteak. Oporrak edozein hondartzatan pasatzea baino nahiago omen dute Gatzagan usoen zain zerura begira egotea /A.G.



## HERRITARREI

Joxerra Agirreurreta

*“Geuk idatzi gura geuke euskeraz, iskribiente gabe”*

**G**arai batien, gure herriko historia idatzi zanian, eskribiruteko gaittasune mendien hartzen auenak gutxi batzuk izaten zien. Oso jende gutxi izaten euen eskribiruteko joerie. Jauntxuek eta buruzagixek eta botere inguruen ibiltzen zienak, horren garrantziaz jabe egin eta berehala bildu zittuen euren arrimora eskribiruten allegetan zien jaun eskribano, eskribiente, notarixo eta sekretarixo.

Baekixien jauntxuok, ondo jakin be, eskribientiei jaten emuten bautzien aguro makurtuko ziela euren esanetara. Pentzau ta egin. Sartu zittuen euren palazietan eta euren esaten utziarik eskribiruten hasi zien. Lehengo latinez, gero erderaz; oso eskribiente gutxi dau euskeraz eskribiru dauenik. Euskaldunon historixan, bestalde, gu geuk idatzitako kronika gutxi dago, gehixenetan euskaldunen gainien kanpotarrak eskribiru izen daue. Euskeraz idatzitakorik, bestalde, alerik bez; erderaz idatzitakuek eta gure kontra zerbait esan dauenak, oster, ugari.

Herrixetan jente korrientiek, hau da, gure morukuek, etzauen leiruten eta leiruten etzauenak nekez eskribiruten auen. Holaxen fan zien urtiak eta urtiak geure herrixen joan-etorrixen.

Holan jarraiketie ez geuke gureko, gure herrixen historia geuk idatzi gure geuke; guk normaltxuok, eta gainera lehenengo aldiz, gure historia idatzi gure geuke euskeraz, eskribiente eta tartekorik gabe. Garunetatik ahora eta garunetatik hatzamarretara dauden tartiek libreki ebalu gure gittuke, eta hortarako lumaz harmaturik gatoz; hasieran baldar ekingo dutzau, nekez, eziñean eta urduri, baiñe jarraixen irixen pausuen antzera sendo, trinko ibili gureko geuke. Gure herrixen gertaketan dienen protagonista guk geuk izan gureko geuke.

## BOTEPRONTOAN/ Rosa Sánchez · Ludotekaria

## “Hemen bizitzeko euskara ikastea ezinbestekoa nuela konturatu nintzen”

**R**osa Salamancan jaio zen 29 urte dela. Pedagogian lizentziaduna da. Duela bi urte, maletak hartu eta gure artera etorri zen. Gatzagako ludotekaz arduratuko da aurrerantzean.

### Zer dela eta Salamancatik Euskal Herrira?

Ikastaro bat egitera etorri nintzen Donostiara. Hilabete egon nintzen. Baina txikitari, bost urterekin, gurasoek Aretxabaletako osaba-izebengana ekarri ninduten, eta bederatzi urte bete arte Aretxabaletan bizi izan nintzen.

### Txikitatik izan duzu, hortaz, Aretxabaletarako joera?

Bai, gero ere oporretan hona etortzen nintzen. Lagunak hemen izan ditut beti, eta duela bi urte, maletak hartu eta gelditzeko eto-

rrri nintzen.

### Eta euskara beharrezkoa zenuela erabaki zenuen.

Lazkaoko barnetegian zazpi hilabetez egon nintzen. Asteburuetan, giro euskalduneko jate baten lan egiten nuen. Koadrila euskalduna izateak ere asko lagundu dit.

### Hasiera ez zen erraza izango.

Koadrilan, “la vinculante” deitzen ninduten, ezer gutxi ulertzen nuen eta guztiari baietza ematen nion. Beti nengoen ados guztiarekin, baina Lazkaora joan orduko nire egoera aldatzen hasi zen. Jatetxean ere egin nituen batzuk: entsaladak gatz falta zuela esan, eta nik sukaldara eraman eta entsalada gatzez gainezka ateratu, adibidez.



### Salamancako lagunak eta zure familiak zelan hartu zuten hona etortzeko erabakia?

Nahiko ondo. Hasiera, amarendako, batez ere, gogorra izan zen. Lagunak ere izan dira hemen pare bat aldiz, eta orain, hobeto ulertzen naute.

### Gaur, zure lanerako euskara ezinbesteko duzu.

Bai, Arizmendi ikastolan egiten dut lan, eta Gatzagako ludotekan hasiko naiz laister.

### Gatzagan izana zinen aurretik?

Askorik ez, baina herri txiki batean lan egiteak asko erakartzen nau. Bi orduz arituko naiz egutero, eta, batez ere, ipuina eta antzerkia landu nahi ditut. Hemendik aurrera izango duzue bertan egiten dugunaren berri.

## ATREBENTZIAEZPADA/ 16 urtetik beherakoak 23:00etarako etxean legearen alde?



**ANA ESNAL**  
43 urte



**L.M. ZUBILLAGA**  
48 urte



**AINHOA BARANDIARAN**  
19 urte



**B. ELKOROBARRUTIA**  
65 urte



**AINARA ZUBILLAGA**  
19 urte

Ez dut inposiziorik gogoko. Asteburuetarako barbaditatea deritzot, aste barrurako, berriz, eta gatzetxoendako, ez zait gutziz gaizki iruditzen.

Ez dago ondo. Bizitzeko gogo gutxi duen agurren baten kontua da hori. 16 urteko gazteak badu ganoraz ibiltzeko edatea, ezta? Ez nago ados.

Oso gaizki deritzot. Diktadura hutsa da. Gazte bakoiatzaren gurasoak erabaki beharrezkoa da hori, eta ez alkate batek. Ez nuke hor bizi nahi.

Ondo. Gaurko gazteek parranda gauz eta egunez lo! Gurasoek lana, eta eurak lo? Hori ez da horrela. Bat baino gehiago zuzenago ibiliko litzateke.

Oso kutrea iruditzen zait. Hamasei urterekin gazteok disfrutatu egin behar dugun aldekoa naiz, eta ez gaueko 23:00etarako etxean egon.

# Taberna eta jatetxeen gida


## Goyaran erretegia



**GOYARAN ERRETEGIA**

Solohaundi-25 ARETXABALETA ☎ 943 79 68 57

## Haizea taberna



**Kafetegia  
eta  
taberna**

**H A I Z E A**

Mitarte, z/g • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 88 60

## Amets taberna



**Taberna eta kafetegia**

Iparagarre, 4 • 943 79 01 29

## Gurea taberna

*Eguneko menuak  
plater konbinatuak*

**GUREA**

Durana kalea • 943 79 20 64

## Basabe jatetxea

**Menu eta afariak**



Basabe poligonoa • 943 79 91 84

## Arlutz taberna




MITARTE, 16 - ARETXABALETA - TFNOA.: 79 32 34

*Gustoko musika*

Mitarte, 16  
Tel.: 943 79 32 34

## Ezkutu taberna



**Zatoz gure musikaz gozatzera**

Mitarte, 9 • ☎ 943 79 92 01

## Hirusta jatetxea

**Zatoz gure sukaldea ezagutzera**



Ilargi plaza, 4 Tel.: 943 79 06 57

## Mendiola erretegia

**ESKORIATZA**

Tfno 714345



**Bazkariak  
eta afariak**

**Astelehenetan  
itxita**

Mendiola auzoa • Eskoriatza • 943 71 43 45

## Baster alde jatetxea



**SASOIKO  
JAKIAK  
GIRO  
ONENEAN**

Galarza auzoa  
☎ 943 79 24 58  
ARETXABALETA

## Matikua jatetxea



*Jatetxea eta taberna*  
Azatza auzoa ♦ Tel.: 943 79 16 68

## Dorleta taberna

**Dorleta**

Loramendi 8 • ARETXABALETA  
☎ 943 79 94 15

## Josu taberna

*Josu  
harategia  
taberna*



- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

Mitarte, 1  
Tel.: 943 77 03 08

## Taberna Berri

**Taberna Berri  
jaketxea**



Durana, 26 • ARETXABALETA  
☎ 943 79 20 67

## Urbaltz taberna



Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 79 79 79  
ARETXABALETA

**TDCi**

**Common Rail berria**  
**130 CV**



lider **naturala**

 **MUGARRI**



**DEBA GARAICO**  
**BANATZAILE OFIZIALA**

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE  
Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 54

[www.mugarri.es](http://www.mugarri.es) / [mugarri@mugarri.es](mailto:mugarri@mugarri.es)